

LABURRAN

MUSIKA

Sean Keane musikari irlandarra Euskal Herrian izango da apirillean

Sean Keane abeslari irlandarra hiru emanaldi eskainiko ditu Deba, Andoain eta Bilbon apirilaren 12, 13 eta 14an, hurrenez hurren. Bakarlari gisa laugarren diskoa kaleratu berri du, *The man that I am*, eta bertan AEBetako kantari behinenek parte hartu dute; besteak beste, Nancy Griffith, Kathy Mattea eta Maura O'Connell. Abeslari irlandarrak tradiziozko musika oinarri duen arren, zaila da bere azken diskoa estilo jakin batean lerrotzea. Hala ere, abestien hautaketak eta abestiak kantatzeko erak helburu bakarra du: hots, abesti sorta berria sortu nahi du, etorkizunean ere kanta tradizionalen oinarria iraurarazteko.

MUSIKA

Easo abesbatza Oklahomako OK Mozart jaialdian izango da

Easo abesbatzak Oklahomako OK Mozart jaialdian parte hartuko du, ekainaren 10etik 15era bitartean. Bertako zuzendari artistikoa Ramson Wilsonen gonbidatu du pertsonalki, aurretik izandako lankidetzaren ondorioz. Ramson Wilsonen Rossiniaren *La Cenerentola* zuzendu zuen Musika Hamabostal-diarentzat. Koroak zirrara handia sortu zion zuzendariari errepresentazio honetan, eta ez zuen dudarik izan gerora ere lankidetzaren bideak irekitzeko. Oklahomako jaialdi hau 1985az geroztik ospatzen da Bartlesvillen eta munduko interpretarik entzutetsuenek parte hartzen dute.

PINTURA

Margolari arabarren lana ikusteko aukera Ajuriako Sala Luis aretoan

Azken urte hauetan arte arabarrak izan duen garapena ikusteko aukera izango da gaurtik aurrera apirilaren 4a bitartera, Ajuriako Sala Luis aretoan antolatuta den erakusketan. Bertan 26 artista arabarren lanen bilduma jasozten da.

Ekitaldi hau Caja Vital Kutxaren ekimena izan da eta margolari arabarrek bere ondareari egin dioten ekarpena publikoari erakustaraztea du helburu. Bildumak Arabako artearen baitan jorratzen diren estilo ezberdinak erakusten ditu.

ZINEMA. Aurtengo ekitaldian lehenengo aldiz animaziozko lan onena sarituko dute

Gaur banatuko dituzte Oscar sariak Hollywoodeko Kodak antzokian

Jacksonen 'The lord of the rings' eta Howarden 'A beautiful mind' filmak dira faboritoak

Agentziak | LOS ANGELES

Bi berrikuntza izango dira gaur arratsaldean Hollywooden —astelehen goiza Euskal Herrian— hango Zinema Akademiak urtero sasoi honetan antolatutako ohi duen Oscar sari banaketan: lehena, 1929an lehenengo aldiz Oscar sariak banatu ziren Kodak antzokian izango dela ekitaldia —azken urteetan Los Angeleseko Shrine Auditoriumean izan da sari banaketa—; bigarrena, animaziozko film onenaren saria emango dutela. Berrikuntza hau da garrantzitsua, eta ondoko animazio lanetako batek jasoko du Oscar saria: *Monsters, Inc.*, *Shrek* edo *Jimmy Neutron: Boy genius* filmak.

Guztira, 24 sari banatuko dira aurtengo hautagaien artean, eta Peter Jacksonen *The lord of the rings*, Ron Howarden *A beautiful mind* eta Baz Luhrmannen *Moulin Rouge* dira faborito nagusiak. Lehenak hamahiru eta beste biak zortzina izendapen jaso dituzte. Euren atzetik Robert Altmanen *Gosford Park* eta Tood Fielden *In the bedroom* daude, hurrenez hurren, zazpi eta bost izendapenekin.

Peter Jacksonen zuzendu duen lanak, besteak beste, film onenaren, zuzendari onenaren, efektu espezial onenaren nahiz gidoi egokitu onenaren saria eskura dezake. Film horri, Ron Howardek John Forbes Nash matematikariaren bizitzan oinarriturik egin duen lanak egin diezaiokete itzala. Lan honek —*A beautiful mind*— film eta zuzendari onenaren izendapena lortu du. Halaber, pelikulan parte hartzen duten Russel Crowek aktore onenaren izendapena eta Jennifer Connellyk bigarren mailako emakumezko aktore onenarena lortu dute. Hain zuzen, lau kategoria horietan lortu zituen Urrezko Globoak aipatu filmak.

Iaz *Gladiator* filmagatik saria

Oscarrerako hautagaiak

Film onena



The Lord of the Rings
Zuz.: Peter Jackson



A Beautiful Mind
Zuz.: Ron Howard



Moulin Rouge
Zuz.: Baz Luhrmann



Gosford Park
Zuz.: Robert Altman



In the Bedroom
Zuz.: Tood Field

lortu zuen Russel Crow aktoreak saria, eta aurtengoa, Sean Penn, Will Smith, Denzel Washington eta Tom Wilkinsonekin lehiatuko da gizonezko aktore onenaren sariagatik.

Bestalde, *Moulin Rouge* filmaren protagonista Nikole Kidman da emakumezko aktore onenaren saria eskuratzeko hautagaietako bat. Halle Berry, Judi Dench, Sissy Spacek eta Renee Zellweger aktoreak ere horretarako izendatuta daude.

Bigarren mailako emaku-

13
izendapen

8
izendapen

8
izendapen

7
izendapen

5
izendapen

Zuzendari onena

Robert Altman	<i>Gosford Park</i>
Ron Howard	<i>A Beautiful Mind</i>
Peter Jackson	<i>The Lord of the Rings</i>
David Lynch	<i>Mulholland Dr.</i>
Ridley Scott	<i>Black Hawk Down</i>

Gizonezko aktore onena

Russell Crowe	<i>A Beautiful Mind</i>
Sean Penn	<i>I am Sam</i>
Will Smith	<i>Ali</i>
Denzel Washington	<i>Training Day</i>
Tom Wilkinson	<i>In the Bedroom</i>

Emakumezko aktore onena

Halle Berry	<i>Monster's Ball</i>
Judi Dench	<i>Iris</i>
Nicole Kidman	<i>Moulin Rouge</i>
Sissy Spacek	<i>In the Bedroom</i>
Renee Zellweger	<i>Bridget Jones's Diary</i>

Bigarren mailako gizonezko aktore onena

Jim Broadbent	<i>Iris</i>
Ethan Hawke	<i>Training Day</i>
Ben Kingsley	<i>Sexy Beast</i>
Ian McKellen	<i>The Lord of the Rings</i>
Jon Voight	<i>Ali</i>

Bigarren mailako emakumezko aktore onena

Jennifer Connelly	<i>A Beautiful Mind</i>
Helen Mirren	<i>Gosford Park</i>
Maggie Smith	<i>Gosford Park</i>
Marisa Tomei	<i>In the Bedroom</i>
Kate Winslet	<i>Iris</i>

Ingelesez besteko film onena

<i>El hijo de la novia</i>	Juan Jose Campanella (Argentina)
<i>No man's land</i>	Danis Tanovic (Bosnia-Herzegovina)
<i>Le fabuleux destin d'Amélie Poulain</i>	Jean Pierre Jeunet (Frantzia)
<i>Lagaan: Once upon a time in India</i>	Ashutosh Gowariker (India)
<i>Elling</i>	Petter Naess (Norvegia)

Jatorrizko gidoi onena

Guillaume Laurant, Jean-Pierre Jeunet	<i>Le fabuleux destin d'Amélie Poulain</i>
Julian Fellowes	<i>Gosford Park</i>
Jonathan Nolan, Christopher Nolan	<i>Memento</i>
Milo Addica, Will Rokos	<i>Monster's Ball</i>
Wes Anderson, Owen Wilson	<i>The Royal Tenenbaums</i>

Gidoi egokitu onena

Akiva Goldsman	<i>A beautiful Mind</i>
Daniel Clowes, Terry Zwigoff	<i>Ghost World</i>
Todd Field, Robert Festinger	<i>In the Bedroom</i>
Frances Walsh, Philippa Boyens, Peter Jackson	<i>The Lord of the Rings</i>
Ted Elliot, Terry Rossio, Joe Stillman, Roger S.H. Schulman	<i>Shrek</i>

mezko aktoreei dagokionez lehen aipaturiko Connellyz gainera, Helen Mirren, Maggie Smith, Marisa Tomei eta Kate Winslet dira hautagai. Atal berean ondoko gizonezko aktoreek erdiesti dezakete Oscar saria: Jim Broadbentek, Ethan Hawkek, Ben Kingsleyek, Ian McKellenek eta Jon Voightek.

Ingelesez besteko film onenaren saria Argentinako Juan Jose Campanellaren *El hijo de la novia*, Bosnia-Herzegovinako Danis Tanovicen *No man's land*,

Frantziako Jean Pierre Jeuneten *Le fabuleux destin d'Amélie Poulain*, Indiako Ashutosh Gowarikerren *Lagaan: Once upon a time in India* edo Norvegiako Petter Naessen *Elling* filmak lortuko du.

Ohorezko sariak

Whoopy Goldberg aktore eza-gunak aurkeztuko duen ekitaldian, sari horiekin batera, Robert Redford eta Sydney Poitier aktoreei emango dizkiete ohorezko Oscar sariak.

IRAGARKI MERKEAK

943 300 222

33 x 33 mm MODULO (Iparraldea)

Eguna: 14 €
Astea (6 egun): 12 €
2 aste (12 egun): 10 €
Hilabetea (24 egun): 8 €

33 x 33 mm MODULO (Araba-Nafarroa)

Eguna: 14 €
Astea (6 egun): 12 €
2 aste (12 egun): 10 €
Hilabetea (24 egun): 8 €

33 x 33 mm

33 x 33 MODULO (Edizio orokorra)

Eguna: 19 €
Astea (6 egun): 15 €
2 aste (12 egun): 13 €
Hilabetea: (24 egun): 9 €

Azkoitian

Taberna batean lan egiteko neska bat behar da

Tel.: 943 85 18 88